

## Fraskunekuen misterioa

**Urriaren 22an**, 10 urte bete nituen. Jada bi zenbakiz osatua zegoen nire urtebetetzeko tarta. Bi kandela erraldoik argitzen zuten sukaldeko mahaia, eta nire gelakide denak bueltan nituen “zorionak zuri...zorionak Ximon...” abesten. Amaitzean, begiak itxi eta desio bat eskatu nuen “Txakur bat... izarrak ikusteko tramankulua ... “. Begiak irekitzean opari handi bat ikusi nuen mahai gainean. Arrapaladan ireki nuen, teleskopio bat zen. Liluragarria zen. Lagunak etxetik joan bezain laster hura muntatzeraz igo nintzen gelara, baina aitak berandu zela, zerua hodeiz estalita zegoela... aitzakiak besterik ez zituenez jartzen, ohera joatea erabaki nuen.

Hurrengo goizean aitak gosari garaian anaia eta bioi albiste bat eman zigun:

- Baserriko izeko Trini bakarrik dago osaba Pedro hil zenetik, eta urteetan ere aurrera doa. Ondo konpontzen da, baina baserria handi xamar geratu zaiola somatu dut, azken aldian. Nire lana etxetik egiteko aukera dut, baserriko lanekin lagunduko genioke, eta izekok gure konpainia izugarri eskertuko luke. Zer iruditzen zaizue hara bizitzera joateko ideia?

Zuhaitzi, nire anaiari, primeran iruditu zitzaion proposamena. Nik etxea eta lagunak uztearen ideia ez nuen gogoko, baina jada aitak erabakia hartua zuenez, aurpegi ona jarri, baietz esan, eta kito. Bi aste igaro orduko, izeko Triniren baserri aurrean ginen maletekin. Izekoren baserria herritik urrun zegoen, mendian. Paisaia hark ez zuen Bilbokoaren antzik, gogoko nuen. Izekok loreak maite zituela nabari zen; baserriko ataria lorategi bat zen, era guztietako loreak ikus zitezkeen loreontzi, kaxa otar .... edozein bazterretan. Izekok denen izenak zekizkien: pentsamendu, dalia, urrelili bitxiloreak, larrosa, huntz... bakoitzarekin hitzordu bat izateko tarte hartzen zuen egunean zehar. Aire sakonki arnastu nuen, beti gustatu izan zait belar moztu berriaren usaina, baina baserriko usaina desberdina zen. Bertako baratza ere ikusgarria zen; ez zen oso handia baina ondo zaindua bai; negutegi bat ere bazuen izeko Trinik.

Baserrian nire gela nuen, bertan teleskopioa muntatu nuen iritsi bezain laster. Gau hartan, ez nuen apenas lorik egin teleskopiotik begira. Izugarria zen bertatik ikus nezakeen irudia. Izekoren etxetik izarrak bikoiztu ez, seikoiztu egiten ziren; ilargia ere niregana hurbiltzen zela zirudien, sinestezina zen. Ohera sartzean, zaratak entzun nituen, kanpotik zetozen; bi aldiz pentsatu gabe, ohetik altxatu nintzen; ez nizkion inori azalpenak eman behar. Teleskopioa hartu, eta zaratak zetozen tokira zuzendu nuen. Ondoko baserritik zetozen. Baserri barruko leiho batean argia piztuta zegoela ikus nezakeen, baina ez nuen barruan gertatzen zena ikusteko aukerarik.

Esnatzean izeko Trinik gosaria prest zuen.

- Zer moduz pasa duzu lehenengo gaua, Ximon?–galdetu zidan izekok.
  - Primeran, lotarako nire gela izatea pasada bat da. Izeko! Ondoko baserrian nor bizi da?
  - Lukas, Tomas eta Frasku bizi dira bertan, Fraskunekuak. Beraien aitak Frasku izena zuen eta izen horri darama baserriak ere “Fraskunekua”. Zergatik galdetzen didazu?
  - Ez, ezer ez izeko.
- Aita sartu zen sukaldera.
- Zer Ximon nahiko lo eginda? Begira zer dudan esku artean! –aitak txakur bat zuen–. Bilboko etxean ez genuen nahiko toki, baina hemen nahiko toki dugunez, baserrirako txakurra ekarri dut.

Ikaragarria izan zen hura, txakur bat nuen. Ikatza bezain beltza zenez, Ikatz izena ipini nion. Arratsalde hartan, Zuhaitz, Ikatz eta ni ondoko baserrira hurbildu ginen. Baserriak ez zuen gurearen antzik, baserri grisa zen hura: oiloak bueltaka ikus zitezkeen edozein tokitan, baserriaren ondoan ukuilu ikaragarri bat behiz beteta; kanpoan fruta-arbola batzuk, baina soroan ez zegoen letxugarik, ez piperrik ezta tomate landararik ere, lur mugitua besterik ez zegoen han... baserriaren ondoan beste baserri txiki bat zegoen, lurretik gora pilare batzuren laguntzaz igoa; hutsa zegoen, ordea. Baserri hark zerbait izkutatzen zuen, gauean entzuten nituen soinuak ez ziren parte onekoak.

Zuhaitzek ere zerbait somatu zuela zirudien, aurpegi arraroarekin begiratzen zuen baserriaren

ingurura .

- Zertara etorri gara hona, Ximon?—galdetu zidan Zuhaitzek.
- Inguruak ezagutzera Zuhaitz- erantzun nion garrantzia kendu nahirik.

Halako batean, Ikatz baserriaren ate aurrera hurbildu eta zaunkaka hasi zen. Gizon bat atera zen bertatik. Itxura desatsegina zuen. Arropa zaharra zeraman soinean, buruan txapela beltza, gorputz okertua eta haren belarrietan ile beltz luzeak ikus zitezkeen. Burua makurtua zuen, itzali mar-marka ari zen. Burua altxatu eta haren begiak nireekin gurutzatu zirenean, beldurrezko pelikula batean nengoela iruditu zitzaidan. Zimurrez beteriko aurpegi hartako begi beltz distiratsu haiek goitik behera aztertzen eta mehatxatzen sentitu nituen. Ikatz esku artean hartu, Zuhaitz eskutik tira eta ziztu bizian baserrira bueltatu ginen.

Negu berezia izan zen hura, eskola berrian lagunak azkar egin nituen eta Bilboko lagunekin “skype” bidez komunikatzen nintzen; lagun mina nuen, Beñatekin, batez ere. Gauero, teleskopioa hartzen nuen. Izarrak begiratzeko tresna hura, Fraskunekuen baserria behatzeko tresna bihurtu zen. Orduak igarotzen nituen baserri hari begira, ate aurrean ikusi nuen gizon beladurgarri haren irudia topatu nahian. Neguko euriekin batera, barazki uzta berria genuen gure baratzean: baba, porru, brokoli, azalore... eta Fraskunekuen baserri aurrean zegoen, buztinez beteriko soroa ere, belar luzez bete zen. Ez nuen, ordea, inor lur hura zaintzen ikusten. Noizbehinka, bi gizon oiloei segika edo traktorean belar bolak mugitzen, baina ate aurrean ikusi nuen gizon haren arrastorik ez, egunean zehar. Gauero, argi bat pizten zen baserri hartan, eta zuhaitzeko adarren dardaren soinuak, baserri hartako soinuekin nahasten ziren. Frasku zegoen zarata haien atzean, ez nuen dudarik. Gizon hark zer egiten zuen gaueko ordu haietan? Baserriko atetik ateratzen ikusten nuen. Behien ukuilura sartzen zen batzuetan, kotxez baserria uzten ere ikusi nuen. Nire burutik pasatzen zitzaizkidan pentsamenduak beldurgarriak ziren. Zerbait gertatzen zen gauetan baserri hartan.

**Maiatza** iritsi zen eta Fraskunekuen belar luzeak kolorez aldatu ziren: berde sorta guztietatik pasa eta hori kolorea hartu zuten. Skypeko dei batean, Beñati baserri hartaz eta bertako belarraz hitz egin nion. Beñatek garia izan zitekeela aipatu zidan. Bilbotarra izan arren, baratze kontuetan aditua zen; haren etxeko terraza ikaragarria zen, han ortu ekologikoa zuten; ez zuen Izeko Trinirenaren baratzen antzik, baina ederra zen hiri bateko terrazan elikagaiak jaso ahal izatea.

**Ekainean**, garia urre kolorez jantzi zen eta urrian hilda zirudien lur hura distiraz bete zen. Laster, oporrak hartuko genituen eta Beñat gurekin egun batzuk pasatzera etorriko zen. Negu osoan, ez nuen Fraskunekuen baserrira gehiegi hurbiltzeko ausardiarik izan, baina Beñat etortzean etxe hartako sekretua argituko genuen. **Udako** hego haize bortitzeko egun hartan iritsi zen Beñat. Garia firin-faran dantzan zebilen Fraskunekuen soroan. Beñati ikaragarri gustatu zitzaion irudi hura. Iluntzean, bi ginen teleskopiotik Fraskunekuen baserrira gortina atzetik ezkutuan begira geudenak; gau hartan, ordea, ez ziren baserri hartako argiak piztu. Soinuak bai, soinuak entzuten ziren. Beñat ere beldurtu egin zen, gaueko isiltasun hartan zarata hura zer zen? Gelako leihoa ireki eta Beñatek gizon bat ikusi zuen baserriko auzo-bidean. Ate aurrean ikusi nuen gizona zirudien. Zerbait zeraman esku artean. Teleskopioa harengana zuzendu genuen. Bai, Frasku zen; esku artean pala handi bat zeraman, eta bizkarrean berriz motxila bat. Beñati ere, ez zitzaion gehiegi gustatu gizon haren itxura, mesfidantza sorrarazten zuen. Leihoa itxi eta biok ohera sartu ginen. Gau osoan gizon haren irudia burutik kendu ezinik izan nuen, zer egiten zuen gaueko ordu haietan pala harekin?

Hurrengo goizean, baserritik ateratzean, traktore zarata forte bat entzun genuen. Fraskunekuen baserritik zetorren soinua, harantz begiratzeko makina ikaragarri bat ikusi genuen. Izekok uzta biltzeko makina zela argitu zigun. Ikatzen bila jaitsi ginen, baina txabolan ez zen haren arrastorik. Baserriko txoko guztietan begiratu genuen, baina ez zen inon ageri. Gaueko irudia burura bueltatu zitzaidan: Ikatz, Frasku, pala... Gehiago pentsatu gabe Beñatekin Fraskunekuen baserrira joan nintzen.

Tramankulu hura martxan zegoen; anaietako bat makinako gidaria zen, bestea, aldiz, guregana hurbildu zen:

- Arratsalde on, mutilak! Zer jada oporretan, ezta? Uzta biltzeko garaia iritsi zaigu eta gaurkoan, gure baserri ingurutik alde egitea eskertuko genizueke.
- Ez horixe, gure txakurraren bila gatoz, Ikatz izena du –erantzun zion Beñatek.
- Ez gara hemendik joango. Fraskuk eraman zuen bart gauean, ziur gaude, leihotik ikusi genuen –ausartu nintzen esatera. Hau esatearekin batera, beso bat sentitu nuen sorbaldan. Buelta eman eta Frasku ikusi nuen, Ikatz esku artean zeraman.
- Honen bila al zabilzate mutilak? Bart gauen mendira buelta bat ematera atera nintzen, isileko ehiztariak tranpak jartzen ari zirela entzun bait nuen, eta begira zer aurkitu nuen tranpa horietako batean.
- Baina, zuuu? gaueko zarata horiek? –galdetu nuen ahots dardartiz.
- Ikuste al dek Frasku! -ihardetsi zion anaietako batek–. Hire makinako zarata Trinin baserritik entzuten duk, hobe diagu betiko garbiketa modura bueltatzea. Behiak ere aldrebestuta zabilzak gauetako zaratekin.
- Zer makinataz ari zarete? Behiak aldrebestuta? – galdetu nien jakinminez.
- Holandako lagun batek, behien ukuilua garbitzeko makina bat oparitu zidan, gauetan martxan jartzea gomendatuz. Ukuiluko zikinak garbitzen dituen makina da. Zuek, kale-umeez, etxeak garbitzeko erabiltzen dituzuen makinak antzekoa da. Lantegiko lana gauetz egiten dudanez, martxan jartzen dut joan aurretik. Inoren kexurik jaso ez dugunez, ez genuen uzte haren zaratak trabarik egiten zutenik. Sentitzen dugu!

Hitz hauek esatearekin batera, burua altxatu eta Ikatz nire esku artean utzi zuen Fraskuk. Une hartan, gizon haren aurpegia berriro ikusteko beta izan nuen. Zimurrez beteriko aurpegi hartako begi beltz-distiratsuetan ez zen gaiztakeriarik islatzen, samurtasuna baizik. Frasku berri baten irudia zen aurrean nuena.

Urre koloreko uzta harekin, baserri ondoan zegoen etxetxo bete zuten Fraskunekuek. Gauetako beldur eta zaratak betirako amaitu ziren. Frasku nire amets gaiztoetako gizon izatetik, nire astronomiako irakasle izatera pasa zen. Lanera joan aurretik, gure baserrira hurbildu eta izarren mundu misteriotsua azaltzen zigun. Uda hartan, lehenengo aldiz, izar-uxoak ikusteko aukera izan genuen Beñat eta biok.

Negua berezia izan zen, baina baserriko nire lehenengo uda hura ez dut inoiz ahaztuko. Egunero dastatzen dudana ogi goxoa dastatzean, urre koloreko garia firin-farin sentitzen dut dantzan ahoan. Izeko Triniren loreak geroz eta gogokoago ditut eta hauen izenak ere ari naiz ikasten. **Baserrian ikasi eta ikusteko kontuak ugari dira, baita bertan izkutatzen diren misterioak ere.**